

ERABAKIA, 2019ko AZAROAREN 27koa, IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, GIZARTE KONTSEILUAREN 2019ko URRIAREN 16ko ERABAKIAREN BIDEZ (URRIAREN 28ko EHAA) ONARTUTAKO GEHIGARRIZKO ORDAINSARI OSAGARRIAK ESLEITZEKO DEIALDIKO MEREZIMENDUEN EBALUAZIORAKO ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEKO DENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA. - 2019ko urriaren 28an EHAA n argitaratu zen UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren 2019ko urriaren 16ko erabakia, irakasle-ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarrien deialdiari buruzkoa. Deialdi horretan hilabeteko epea ezarri zen eskaerak aurkezteko, erabakia EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; beraz, epea azaroaren 28an bukatzen da.

BIGARRENA. - 2019ko azaroaren 21ean, CCOO sindikatuak 2018ko irailaren 7ko EHAA n argitaratutako Unibasqen protokoloarekin lotutako epaiaren betearazpen intzidente baten ibilbide judizialari buruzko komunikatu bat atera zuen. Protokolo hori da, hain zuzen, A eta B mailetako gehigarritzko ordainsari osagarriak eta unibertsitate eskolako irakasle titular ez-doktoreen osagarri espezifikoak esleitzeko Gizarte Kontseiluak 2018ko urriaren 10ean (azaroaren 5eko EHAA) onartutako deialdiko merezimenduen ebaluazioa egiteko erabili beharrekoa.

Deialdi horren ebazpen eta jakinarazpen epea bertan behera utzi zuen Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailaren 12ko erabakiaren bidez, EAEko Auzitegi Nagusiak aurreko paragrafoan aipatu den protokoloaren legezkotasunari buruzko ebazpena eman arte.

HIRUGARRENA. - Komunikatu horren edukia ikusita, Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak ohar bat argitaratu du, gehigarritzko ordainsari osagarrien uneko deialdiko merezimenduen ebaluazioa egiteko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen. Ohar horren helburua izan da, une honetan eskaerak aurkezteko fasean dagoen deialdiaren aurreikuspenak aintzat hartuta, bigarren aurrekarian adierazitako deialdiaren barruan merezimenduak ebaluatzeke eskaera egin duten irakasle-ikertzaileek dituzten zalantzen eta espero dezaketenaren aurrean erantzuna ematea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA. - Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari dagokio, eskumenak eskuordetuta dituen gero, erabaki hau ematea, Gizarte Kontseiluaren 2019ko urriaren 16ko erabakiaren bidez (2019ko urriaren 28ko EHAA) onartutako irakasle-ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarrien deialdiko 16. oinarrian ezarritakoarekin bat.

BIGARRENA. - Gerta daiteke eragindako pertsonen tarte horretan benetan jakin ez izana, behar bezala erabaki ahal izateko, batetik, zer ondorio izango dituen CCOO sindikatuak ezagutzera emandako testuinguru judizialak, Gizarte Kontseiluak 2018ko urriaren 10ean onartutako deialdian (azaroaren 5eko EHAA) aurkeztutako eskaerei dagokienez, eta, bestetik, zer aukera emango dizkien une honetan izapidetzen ari den deialdiak dagoeneko eskaera horiek

aurkeztu dituzten pertsonen, A eta B mailetakosagarri eta unibertsitate eskolako irakasle titular ez-doktoreen osagarri espezifikoak dagokienez.

Egoera zein den ikusita, komeni da pertsona horiek denbora gehiago izatea, kasuan kasuko eskaera egiteko, hala badagokio.

HIRUGARRENA. - Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 32. 1 artikuluan: «Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie».

Zuzenbideko bigarren oinarrian adierazitako inguruabarrek komenigarri egiten dute deialdian eskaerak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino lehen epe hori luzatzea, ofizioz, 2019ko abenduaren 13ra arte (egun hori barne), kontuan hartuta epea luzatzeko erabakia epea amaitu orduko hartu dela, eta, horrek ez diela kalterik egiten hirugarren batzuen eskubideei.

Horregatik guztiagatik, bat etorrita urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 32. artikuluan lege beraren 35.1c) artikuluekin lotuta dioenarekin, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Luzatzea, 2019ko abenduaren 13ra arte, A eta B mailetakosagarri ordainsari osagarriak eta unibertsitate eskolako irakasle titular ez-doktoreen osagarri espezifikoak esleitzeko Gizarte Kontseiluak 2019ko urriaren 16ko erabakiaren bidez (2019ko urriaren 28ko EHAA) onartutako deialdiko merezimenduen ebaluazioa egiteko eskaerak aurkezteko epea.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta, horrez gain, Ehutaula iragarki taula elektronikoaren bidez argitaratzea.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 32.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, erabaki honen kontra ezin daiteke errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEA



INMACULADA GUERRICAGOITIA MARINA